


“IDEKOREN KODE ETIKOA” dokumentuaren laburpena (2023ko azaroa), 4. atala: “Jokabide profesionalari buruzko arau orokorrak”; 4.4 azpiatala: “Iruzuraren aurkako borroka”.

4.4. Iruzuraren aurkako borroka

- IDEKOk legearekiko errespetua eta era guztietako ustelkeriaren aurkako borroka zaintzen ditu bere jardunean. Ildo horretan, IDEKOk konpromiso irmoa adierazi du irregulartzat jo daitekeen praktikarik ez egiteko, kapital zuriketarekin lotutakoak barne, bai enpresa bezeroekin, bai hornitzaileekin, bai enpresa lehiakideekin eta agintariekin dituen harremanetan.
- Ildo horretan, IDEKOk profesionalak ezin izango dute, ez zuzenean ez tarteko pertsona baten bidez, justifikatu gabeko abantailarik edo onurarik eskaini edo eman, ez eskatu ezta onartu ere, baldin eta helburua Kooperatibarentzat, norberarentzat edo hirugarrenentzat orainean edo geroan onura bat lortzea bada. Zehazki, profesionalok ezin izango dute ez eroskeria egintzarik egin ez komisiorik eman edo jaso inplikaturako beste edozeinen eskutik; horien artean, funtzionario publikoak, espainiarrak nahiz atzerritarrak; beste enpresa batzuetako langileak; alderdi politikoak; agintariak; enpresa bezero edo hornitzaileak eta akziodunak. Eroskeria egintzak berariaz debekatuta daude eta horien artean sartzen da edozein abantaila desegoki eta hori estaltzeko edozein tresna zuzenean edo zeharka eskaintzea edo agintzea, eragin trafikoa barne.
- Era berean, ezin izango da, norberari zuzenduta, enpresa bezeroen edo hornitzaileen dirurik jaso, ezta mailegu edo aurrerakin gisa ere.
- Opariei eta bestelako ordainsariei dagokienez, halakoak debekatuta daude, tokiko gustu eta erabileren arabera kortesiazkotzat jo daitezkeenak izan ezik.
- Bestalde, profesionalak interes gatazka oro saihestuko dute, profesional baten interes pertsonalak eta IDEKOn interesak, zuzenean edo zeharka, talka egiten dutenean. Kasu horretan, profesionalak Kooperatibari jakinarazi beharko diote hierarkian gorago dagoen arduradunaren bidez, Betetze Batzordeari jakinaraz diezaion eta gatazka egoera amaitzeko hartu beharreko neurri egokiak har ditzan.
- IDEKOk profesionalak legez kontrako jokabide bat ikusten badute, informazioa eman edo kontsulta egin beharko dute hierarkian gorago dagoen arduradunaren edo/eta Betetze Batzordearen bitartez.

Nerea Aranguren
Zuzendari gerentea



IDEKO MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Elgoibar, 2023ko azaroaren 30a